# BAYONETA

## Tolosaco Napoleonen aurcaco aldizcaria, ó Periódico antinapoleónico de Tolosa

*Tolosan inprimatua bere legezco Udal eta Archiboaren babesean,*
*Eusco Icascuntzaren pribilejioarequin,*
*Zehazten mercatalecheac, Artem moldizteguian.*



*Impreso en Tolosa bajo la protección de su legítimo Ayuntamiento y Archivo,*
*con privilegio de la Sociedad de Estudios Vascos,*
*por la casa de comercio de Zehazten, en la imprenta de Artem.*

**Tolosan, 1810co agorrillaren 16an. Londresco Estafeta, Donostiatic iritsia.**

Tolosarrac azquenecoz Bayoneta iracurri cenutenetic eztira gauzac asco obetu Europan. Basatiaren armen pean zampaturic jarraicen du. Tirania beldurgarri orren azpian ez dauden bacarrac beren arma ta biciequin defendicen direnac dira.

Lan oriec eguin ecin edo nai ez dituztenac Bonaparteren chaperoen sable ta bayoneten pean daude. Aurtengo garillan Holandaco erreinu lastimosoaren jabe eguin da, bere coroa odoltsuraco beste trofeo bat bezala. Ilabete beranduago berdina guertatu zayo Westphaliaco ducaduari ere. Diotenez, iñongo lotsic gabe bere buruari "Rineco Confederacioco Babeslea" deicen dion orrec, Alemanico iparraldeco beste estatuac ere cañoien meachupean, indarrez babestuco omen ditu.

Europaco etorquizuna jocaldi batean arguituco da. *Mylord* Wellingtonec erreguearen ta Portugalco equersituequin jocatuco duen artan. Ia Bailenen moduco garaipenic lorcen duten ta bertan Gabriel de Mendizabal bezalaco guipuzcoarrec adoretsu eguiten dieten aurre Tiranoaren armei. Alba de Tormesco batallan eguin zuen bezala, bertan coadroa formatuta Basatiaren zalduneriaren iru eraso-aldi gueratu bait cituen. Bergarar ospetsu onec, beraz, ayec gaindituac izan daitezquela frogatu du. Ez ote da inguelesen adorea oztuco, Tiranoac, Fontainebleauco babesean, urriaren 18an siñatutaco decretuac aguicen duenez, itsas bloqueoa gogorcearen ondorioz, beren ugartea zampatuta icusten dutenean. Adorea galcen badute denoc esclabu moduan edo heroien moduan ilda bucatuco dugu, ta ez dugu Tiranoa gallurretic eroricen icusico.

**Tolosaco berriac. Bertan icusiac.**

Tolosan ez doaz obe gauzac. Badaquizute urrian garia eta oguia faltatu zaizquigula. Soroa ta anceco Tiranoaren cerbizariec Thouvenot Anayari Naparrotic cerbait ecar cezala escatu cioten. Eztaquigu Equialdetic etorritaco zaldun onec escuadra eta ondo erabilcen daquizquilaco escatu cioten edo beste arrazoiren batengatic. Guc burutacio obe bat badegu: guero ta etsai gueio dituzten borrocalecuetatic ecarri ta eramaten dituzten bidelapurrei ta Basatiaren jeneralei Tolosaco ta bere mercatuco ateac ixtea.

Ala da, eguin contu bestela gudaraco bidean, bere buruari Abrantesco duquea deicen dion Junot jaunac Tolosatic igarocean eguin dituen janaldietan xahututacoaz: capoiac, ollascoac, aateac, usacumeac, ollagorrac, arcumea, araguia, mingañac, solomoac, cherri ancac, guilchurdinac, urdaia, guriña, chorixoac, berdura, amuarraiac, legaza, arrauzac, oguia, arroza, azucrea, sagarrac, gazta, vizcocho opillac, dulceac, ardo gorria, ardo churia, Burdeosco ardoa, moscatela, rona, Hendaya, patxarra ta cafea. Aimbesteco saquea duenic gueyago ez badator denoc cer jana izango degu. Eta gure Udaleco chonchonguilloec ere ez dute azillaren 14an, Basatiaren piztiei emateco janariric ez zutela icustean pasa zuten beldurra bezalacoric iñoiz izango. Ez lizaque berriz denetic jaten dutenic edo arranchoarequin naicoa dutenic etorrico.



*-Maistra, jardinerua eta corsarioa.*
*-La maestra, el jardinero y el corsario.*

Gueiago etorcen ez badira, egun barbaro auec pasarazten diguten icasqueta ta ilustracio gosea ere amaitu eguingo da. Duela urtebete aipatu nizuen Jose de Lacomba maisua nola tratacen zuten. Berdiña eguin dute orain doña Maria Teresa Ygnacia de Ormaechea maistrarequin ere, 1808. urtetic joan den urriac 7 arte zor cizquioten 588 errealac ordaindu gabe eduqui baitute. Udala diruz gaizqui cebillela eta orain arte cobraceric nai izan ez duten auzotar eredugarri onen echean, ta ciurrenic azillaren 6an cobratu duten gainonceco maisuen echeetan ere, ez du pozac asco iraun, lotacillaren 3an Tiranoaren soldaduac echean arcera beartu bait dute.

Certaraco galdetu zuen agorrillaren 22an Thouvenot Anayac Guipuzcoan cembat escola dauden? Danac apurceco?

Ez da batere harricecoa au guertacea. Borondateric gabeco jendea dugu aguintean, satrapa batec ezpataren meachuz, iñorc auqueratu gabe, jarriac. Cembat lapurtuco diguten ere ecin dute erabaqui. Ara or erroten contua, Thouvenotec aguindu zuenean bacarric saldu al izan cituzten lotacillaren 14an.

Orrelacoetan iguercen da aguintean dauden auen clasea. Tiranoac cioenez, elizguizon fanatico bazuen erruz gueunden miseriatic ateraco omen guintuzten. Ez dituzte, ordea, oraindic pulpitutic bidali, eta Thouvenot Anayac urriaren bucaeran aguindu duen bezala bertan mantenceco interes aundia dute.

Ala ta guztiz ere ez etsi, Tiranoa garaitua izango da eta. Ciur egon ez dutela salbatuco, ez bere mariscalec, ez bere bidelapur equersitoac, ezta Juan de Sibas bezalaco traidoreec ere. Onec, bere eguinbearraren aurca, legorreco corsarioequin egon ordez, idolo baten modura cerbizacen du Tiranoa, bere Inmemorial errejimenduaren desooretan. Alperric dabil Thouvenot Anaya corsario orien erasoac aldenceco, Drouet d'Erlon jeneralaren aguinduz, lorezain lanac eguinaz errepide bazterretaco zuaiz ta zuaixcac mozten. Laster bucatuco dira bai egun tristiac eta orduan azaleratuco dira, Ascatasunaren alde ari cela esanaz ura il zuenaren guezurrac.

**En Tolosa a 16 de diciembre de 1810. Estafeta de Londres, por vía de San Sebastián.**

Tolosarras, desde la última vez en la que tuvisteis noticias de esta Bayoneta, los negocios de la Europa no han mejorado mucho. Toda ella sigue oprimida por las armas del Ogro y los únicos que todavía respiran aire no viciado por esa horrible Tiranía sólo lo consiguen merced a las armas y defendiéndolo a riesgo de sus vidas.

Quienes no están dispuestos o no pueden hacer tan heroicos esfuerzos, quedan condenados a sucumbir bajo los sables y bayonetas de los esbirros de Buonaparte. En julio fue el desdichado reino de Holanda quien cayó completamente bajo las garras del Tirano, que lo anexó a su Corona sangrienta como un bárbaro trofeo más. Un mes después fue el ducado de Westphalia. Ahora se habla de que, en breve, el que se califica a sí mismo, sin rubor alguno, "Protector de la Confederación del Rín", quiere ofrecer más de esa protección a varios estados del Norte de la Alemania que, de seguro, no podrán rechazar tan amables ofertas hechas a punta de cañón.

El destino de la Europa se juega, pues, a una sola carta: la que *mylord* Wellington pretende arrojar sobre el tapete en las Torres Vedras cerrando filas junto al ejército del rey y el de Portugal. Esperemos que los laureles de Bailén reverdezcan allí e ilustres guipuzcoanos puedan brillar otra vez bajo el fuego de las armas de los vándalos que sirven al Ogro. Como ya lo hizo Gabriel de Mendizabal en la batalla de Alba de Tormes el año pasado, donde detuvo, formando cuadro de Infantería, tres cargas de la Caballería del Tirano, que siempre se había dicho invencible y, sin embargo, sucumbió ante el preciso arte militar de este laudable vecino de Vergara que tan bien conoce su oficio de soldado. Esperemos igualmente que el valor de los ingleses no flaquee al ver su isla atenazada por el bloqueo contra sus puertos que el Ogro ha mandado endurecer desde su guarida de Fontainebleau este último 18 de octubre. Si eso llegase a suceder sólo nos aguardaría a unos la esclavitud, a otros la muerte de los héroes y puede que a ninguno la dicha de ver al Tirano caído de su infame pedestal.

**Noticias de Tolosa. Observadas del natural.**

Nada ha mejorado tampoco en nuestra noble villa. Habéis visto en el mes de octubre que el trigo, y con él el pan, escasean. El señor Soroa y otro fieles sayones del Tirano dijeron que solicitarían gracia al Hermano Thouvenot para que, desde Navarra, se extrajese alguna cantidad que nos aliviase. No sabemos si se lo imploraron por la escuadra y el compás de pacotilla que ese caballero, venido, en efecto, del Oriente, maneja con soltura, o por otros medios. Esta Bayoneta sugiere uno infalible para que no padezcamos más carestía: prohibir la entrada a esta villa a los generales del Ogro, y a los bandoleros que, con el nombre de "Ejército", los siguen y pasan por ella a los campos de batalla donde cada día les salen al encuentro más y más enemigos.

Es cosa de Lógica. Baste un sólo ejemplo: recordad lo que en su día se llevó a la mesa del que se hace llamar duque de Abrantes, el señor Junot, que parece haber cogido gusto a nuestra exquisita cocina por la frecuencia con la que se detiene a paladearla en sus viajes a diferentes guerras. Fueron capones, gallinas, pollos, patos, pichones, sordas, cordero, carne, lenguas, lomo y patas de cerdo, riñones, tocino, manteca, chorizos, verdura, truchas y merluza, huevos, pan, arroz, azúcar, manzanas, queso, torta de bizcochos y dulces, vino chiquito, vino blanco, de Burdeos, moscatel, ron, Hendaya, aguardiente y café. Desaparecidos tales estómagos sin fondo, es claro que habrá alimento para todos. Además, nuestro Ayuntamiento de títeres no tendrá que volver a pasar terror pánico como el que volvió a sufrir por esa causa este último 14 de noviembre, cuando vio que no tenía con qué alimentar a estas fieras al servicio del Ogro. Ni a las más exigentes, ni a las que se despacha con pan de munición.

Acabará entonces también el hambre de conocimientos e ilustración que estos bárbaros nos hacen padecer con igual asiduidad. Considerad lo poco que han cambiado las cosas en un año Si entonces os contaba esta Bayoneta el triste caso de don Martín José de Lacomba, ahora os puedo, y os debo, contar el de una de nuestras dos maestras, doña María Teresa Ygnacia de Ormaechea, que sólo el pasado 7 de octubre consiguió que don Bruno de Ayaldeburu y sus secuaces municipales le pagasen los 588 reales que le debían de su sueldo desde el año 1808, en dinero o a cambio de un vale por la especie que a ella más le convenga. Cantidad que, sin embargo, de bien poco le ha debido aprovechar -como seguramente también de poco servirán los pagos hechos a los demás maestros este 6 de noviembre-, pues el 3 de diciembre han vuelto a molestarla. Esta vez para que esta ciudadana ejemplar -que no quiso cobrar sus atrasos hasta ahora, sabiendo las dificultades por las que pasaba nuestra Hacienda- siguiese alojando en su modesta vivienda, que sirve al mismo tiempo de escuela, a soldadesca del Tirano. ¿Para eso se interesó el Hermano Thouvenot el pasado 22 de septiembre por el número de estos establecimientos que había en nuestra provincia?. ¿Para mejor destruirlos?.

No es raro, sin embargo, que tales cosas ocurran. Nos gobiernan hombres sin voluntad propia a los que ese sátrapa ha designado a punta de sable y no mediante elecciones. Tan débiles que ni siquiera pueden decidir cuándo robar nuestro patrimonio, como se vio el 14 de diciembre. Sólo entonces permitió el eximio general a estos títeres vender los molinos de la villa.

Se ve en gestos como estos la verdadera naturaleza de ese gobierno que, decía, venía a salvarnos de la ignorancia y la oscuridad tenebrosa en la que, según el Tirano, estábamos sumidos por culpa de un clero fanático. El mismo que ellos se muestran, sin embargo, tan interesados en mantener. Como se vio por las perentorias órdenes a ese respecto dadas a finales de octubre también por el Hermano Thouvenot.

Pese a todo confiad en la derrota del Ogro, de la que no lo salvarán, estad seguros, ni sus mariscales, ni su ejército de bandidos, ni los traidores que le sirven. Como el capitán Juan de Sibas que deshonra al regimiento Inmemorial sirviendo bajo las armas de ese falso ídolo y no, como sería su deber, con los corsarios terrestres, a los que en vano tratará de desalojar el Hermano Thouvenot por medio del ejercicio de Jardinería que el pasado agosto le ordenó hacer el general Drouet d'Erlon, obligándole a podar los setos y árboles de nuestras carreteras. Acabarán, sí, tiempos tan tristes y llegarán otros en los que se descubrirán todas las mentiras de quien asesinó a la Libertad mientras aseguraba ser su mayor defensor.